

Erradiografiak azkarrago egiteko sistema berria

Erradiologoei lana erraztea eta X izpien eraginpean egon behar duten gaixoei erradiazio-arriskua gutxiagotzea. Horiexek dira Alemaniako Seven Ploem ikerlariak aurkeztu duen aparatu berriaren betekizun nagusiak. Vienako Nazioarteko Topaketan aurkeztu du Ploemek X izpiak erabiltzen dituen erra-

diografia-sistema berria. Orain arte ezagutzen diren aparatuek sortzen dituzten arazoak saihestea izan da bere lanaren helburua. Ploem erradiologoa denez, badaki zein zaila eta luzea izan ohi den erradiografiak egiteko prozesua. Gaur egun erabiltzen diren sistemek aginte asko batera erabiltzera behartzen dute erradiologoa eta ondorioz, prozesua behar baino gehiago luzatzen da. Erradiografiak egiteko behar den denbora azkartzeak erradiologoari ezezik, gaixoari ere mesede handia egingo dio. Erra-

Ploemek Vienako Nazioarteko Topaketan aurkeztu zuen prototipoak orain arteko sistemak erradiografia bat egiteko behar duten denbora erdira ekarri du.



diazio-denbora baita, azken batean, gutxiagotuko dena.

Vienan aurkeztutako prototipoa "maizterra eta esklabua" izenez bataiatu dute. Hitz lauz esatearren, esklabua X izpiak igortzen dituen aparatua da eta maizterra pazientearekin zuzeneko harremanetan dagoen eta esklabuaren mugimenduak agintzen dituen kontrol-sistema. Maizterra eta esklabuaren arteko komunikazioa elektronikoki burutzen da. Erradiologoak sistema berria ukimenaren bidez maneiatzen duen bitartean, X izpiak pazientearengan sortzen dituzten irudiak kontrola ditzake. Ploemek aurkeztutako prototipoak orain arteko sistemak erradiografia bat egiteko behar duten denbora erdira ekarri du.

Antidepressiboaren polemika

Prozac antidepressiboa berriro ere albiste bilakatu da zientzilarien artean. Duela urte batzuk depresioaren sintomak ezkutatzeaz gain garunetan arazo larriak sortzen zituela zabaldu zen. Zenbait lekutan medikamentua saltzea eta ikerketetan erabiltzea debekatu egin zuten. New Yorkeko Unibertsitatean, ordea, Prozac-ek animalien sortzen dituen bigarren mailako ondorioak ikertzen segitu zuten.

Ikerketa-eremua definitzeko orduan, lehen azterketa-fasea Prozac-ek animalien ohituretan sortzen dituen aldaketetara mugatu zuten. Orain arte frogatu ahal izan dutenez, arratoi arren artean agresiorako joera handiagotu egiten du Prozac-ek. Orainsu ekin beharko zaio ikerketaren hurrengo faseari eta giza-semeetan medikamentuak antzeko erreakziorik sortzen ote duen ikertuko dute. Polemikaren bigarren fasearen atarian egon gintezke.

Eskuak garbitzeari buruz

Eskuak garbitzea haurtzaroan hala-moduz irakatsitako ohitura baino zerbait gehiago izan daitekeenaren berria orainsu heldu zaigu. Azken ikerketen arabera, otorduen aurretik eskuak garbitzeak ezuste bat baino gehiago saihestu dezake. Zehazki, eskuak bi ordutik behin garbitzea gomendatzen dute ikerlariak zenbait birusenganako babesa lortu ahal izateko. Agidanez, gastroenteritis eta A hepatitisaren birusak dira setatsuenak. Hilabeteak eman ditzakete gaintan pausaturik. Horietakoren bat eskutan hartuz gero, zazpi ordu baino gehiago iraun ditzake onik, gaixotasuna kutsatzeko moduan.

